

Espainiera hautatzeko eskubidea

Duela urte pare bat Bruselak euskara aintzat hartuko zuela “saldu” zigutenean, ergelkeriatzat hartu nuen. Euskara ofiziala den etxeko zati honetan 2010ean Bilboko anbulategietako harreretan erdarara behartzen zaituztelarik, badira Brusela baino premia larriagoak. Baina ikuspegi kontua ere bada: euskaraz bizi gura dugula esaten denean, Euskal Herrian euskaraz bizitzeko eskubideaz dihardugu. Ondotxo dakigu euskara ez dela Europarako, kontinenteko gure txoko txikitik harago. Kanporako ingelesa behar da. Ingelesa, ez espainola edo frantsesa.

Nonbait horretaz guztiaz jabetu direlakoan, eredu ingelesa ekarri gura digute agintari autonomikoek. Erraz suma daiteke atzean herritarrek hautatutako euskarazko ereduak ahultzeko borondatea; artez euskararen aurka jotzea politikoki oso zuzena ez denez, “hizkuntza bakoitzak gutxienez ehuneko hogeita (%20) izan dezala” proposatu berri dute. Ingelesaren aitzakian espainiera indartzeko egitasmo lotsagabea da, ados, baina egon dagoen arazoari heltzen dio: ikasketak amaitutakoan ikasle elebidunak izatea (euskarari dagokionean, bistan da) porrota izan den gisan, nazioarteko hizkuntza nagusiaren ezagutza ere oso urrun dago



INIGO AZKONA

egun edozein europarrek beharko lukeenetik. Baina euskaltzaleok bi argudioak batzea (“euskalduntzea lortu ez eta, ingelesa sartu nahi dute?”) hankasartze larria da: beren kosmopolitismo hispanoa euskal arloteke-riaren ifrentzu gisa saldu digute urtetan, baina 2010ean ezin diegu horren merke eman. Mexikotik Buenos Aires-erako hizkuntza daukate, baina Hendaiatik iparrera galduta daude. Luzaz sinetsarazi digute, gurea etxerako ederra izanda ere, behin serio jarrita espainierari hel diezaiogula. Bada sasoia espainieraren mugez ere berba

egiteko. Etxerako euskara daukagun legez, kanporako ingelesa –edo txinera, aurki?– askoz beharrezkoago eta praktikoagoak direla barneratu dezagun. Ingelesa beharrezko da, indartu beharrekoa, ados. Ikasketak amaitutakoan ikasle oro da espainiera hiztun, baina asko ez dira euskal hiztun. Ondorioak argia behar luke: euskara eta ingelesa indartu behar dira, eta espainieraren tarte murriztu. Nahi duenak, hauta dezala ikasgai gisa, baina ikasle orok espainieraz dakienez, komeniko litzateke hautazkoen multzora pasatzea. Lasai, 50 urte barru euskara normalduta

badago eta nazioarteko hizkuntza –izan txinera zein ingelesa– euskaldun orok jakinda ere, espainolak indartsu jarraituko du. ■

«
Ikasketak amaitutakoan ikasle oro
da espainiera hiztun, baina asko ez
dira euskal hiztun. Ondorioak
argia behar luke: euskara eta
ingelesa indartu behar dira, eta
espainieraren tarte murriztu
»

HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Goazelarik, gure xumean ikusten eta sentitzen gaituzte. AHTri buruzkoak eta Baterak proposatutakoak beren bidea egin dute. Bozketa gune ofizialeetatik hara, haien inguruan ezarritako karpaxoetatik zenbait jende iragan da. Ez dira gutxi izan bertaratu eta zertan ari ginen galdezka etorritakoak. Honek zenbaitekiko lehen harremanak izateko aukera eman digu. Era askotakoak hurbildu zaizkigu, eraturako kontsultak baldintza negargarrietan gauzatu behar izan ditugula agerian utziz. Gure mundutxotik at, inor gutxi zekien zertara zetorren lau bat lagunek mahaia eta afixak karpapean eza-

Batera

rri izana. Oro esplikatzen behar zen, deszentralizazio oinarritzkoenak ekar liezazkigukeen abantailak bat bestearen ondorengatik adieraziz. Bozka bakoitzak, aldame-neko bozketa gunean ez bezala, mintzaldi bat. Galdera zorrotzik ez genuen falta izan, independentzia hitza kopeta beltzez barne. Kontaketan ezetzen tropa osatzen zutenenak, noski. Pozteko motiborik ez zaigu falta izan, eragozpen guztien gainetik kontsultatuak izateko eskubidea gauzatu baitugu. Militante andana mugitu da prozesuan, eta fundamentuzko zerbait egiteko gauza bagarela ikasi dugu. Batera joatearen gozoa dastatu dugu, honek segida balu jangarria izan daitekeena. ■